


Uncommon People: Resistance, Rebellion and Jazz

Eric J. Hobsbawm
The New York Press, New York, 1998, 360 orr.



Laburpena

1998an, Eric Hobsbawm-ek berridatziriko *Uncommon People: Resistance, Rebellion and Jazz* 'Jende ez oso arrunta, eresistentzia, altxamendua eta jazz' liburuak, gizadiaren zati handiena osatzen duten pertsona anonimo eta historiarentzat oinarritzkoak izan direnak ditu protagonista. Indibiduo bakar bezala agian ez, baina era kolektibo batean, kultura eta historiaren ibilbidea aldatu dute, XX. mendetik hasita batik bat.

Arestian aipatu gaiak, liburuaren ondorengo lau atalak lotzen ditu (bakoitzak zenbait kapitulu izanik bere baitan):

- *Tradizio erradikala*
- *Historia Garaikidea*
- *Jazza*
- *Mundu zaharra eta berria*

“Tradizio erradikala” (1-10 kapituluak)

Atal honek, talde eta esparru sozial zehatzak ditu ardatz, eta hauei dagozkien ideologiak (bereziki sozialismoa).

Ataleko lehen kapitulua Thomas Paine-ren biografia batekin hasten da. Britainiar jatorriko amerikar eskulangilea, Frantzian errefuxiatu eta girondinoekin batu zen. Izualdian kartzelaratua izan ondoren, AEB-ra itzuli zen. Gizadiaren zoriona pobrezia bakaera zela aldarrikatzen zuen, baita hori lortzeko iraultzaz baliatu beharra zegoela defendatu ere, eta Arrazoiak iraultza nola garaitu argituko zuela.

Ondoren, bigarren kapituluak, XVII.-XIX. mendeetako makina erasotzaileei buruzko dihardu, eta bi eratako suntsiketak aipatzen ditu. Lehen suntsiketa motaren helburua, patroiei presioa egitea zen, soldatak igotzeko... Bigarrenak, langileek, Industria Iraultzan sortutako makinenganako gorrotoa adierazten du (lana aurrezten dutenenganakoa gehien bat).

Hirugarren kapituluak, kapitalismo industrial bano lehenagoko zapatariek, gremioetan antolatuta zeudela, politika arloan izandako garrantzia jorratzen du. Intelektualak ziren, batzutan ekonomikoki independientek... Herri mobilizazioak egon zitezkeen lekuetan egoten ziren. Denbora aurrera joan ahala, euren egoera eta izaera aldatzen joan zen: “zapatari filosofoak” izatetik, “zapatari erradikalak” izatera pasa ziren. Hasierako erlijio heterodoxoa laga eta langile mugimenduekin batera ezkerreko ideologia beretu zuten. Jadanik ez zuten tailer txikietan (kualifikazioa) lan egiten, fabrika handietan bano (deskualifikazioa).

Laugarren kapituluak, langile mugimendu britainiarra (non erlijioa aski garrantzitsua zen) eta frantsesa konparatzen ditu. Bi herrialdeen historia desberdina izanik, lehenengoaren ezaugarri nagusia erradikalismo disidentea litzateke, eta bigarrenarena tradizio iraultzailea.

Ondorengo kapituluak, 1870-1914 artean, industrializazioak bizitza britainiarra noraino eraldatu zuen azaltzen du: jantziak (txapelak), “*fish and chips*” dendak, golf-a, tenisa, futbola, etxebizitzaren egitura eta banaketa, biztanleriaren konposizioan izandako aldaketa (adina eta sexua), Estatuaren interbentzionismo gero eta nabarmenagoa, politika eta sufragioa zabaltzea, fabrika handiak izatea...

“Balio victorianoak” izenburupean, seigarren kapituluak, gremioei buruz hitz egiten du (eskulangile kualifikatuek osaturiko sozietate itxi arautuez) eta hauek izandako aldaketaz. XIX. mendeko azkeneko hamarkadak bano lehenago (lan banaketa berriak, deskualifikazioak... ezkerreko ideologietara jotzea ekarri zien garai honetan), ekonomia moral batean oinarritzen ziren (ez zuten diruagatik lan egiten), eta euren betebeharra zen lana ondo egitea. Produkzio kooperatibo bat bultzatu zuten, konpetentzia eta kapitalismoa ekidin nahi zituzten (sozialismo utopikoaren oinarriak hemen leudeke), eta sindikatuak eratzen hasi ziren halaber.

Zazpigarren kapituluak, langile mugimendua aztertzerakoan ikonografiak duen garrantzia aipatzen du. Gizonezkoen irudiak emakumezkoenak baino ugariagoak dira, eta azken hauek sozialismo utopikoa errepresentatzeko dira batez ere. Jainkosak dira, musak. Natura, nekazaritza, emankortasuna adieraztea dute helburu. Izpirituak dira, ez gorputzak. (*Pasionaria*) Bestetik esan, emakumeen irudien kopurua, mende bateko tartean gutxitu eta jantziagotu egiten da, gizonezkoena areagotu eta biluzten den heinean. (Gizon langileak gerritik gora biluzik agertzen diren irudiak ez dira errealistak, meatzarien kasua kenduta.) Hor legoke paradoxa: Teorian langile mugimenduak sexuen arteko berdintasuna eta, emantzipazioa bultzatzen zituen baina praktikan emakumeak baztertu (konpetentzia ekonomikoa gutxitzeko?).

Hurrengo kapitulua, “Jai baten jaiotza: maiatzaren lehena”ri eskainia dago. 1889an, Parisen, II. Internazionala ospatu zen. Bertan erabaki zen halaber zortzi orduko lan-egunen aldeko manifestazio unibertsala egitea. AEB-n manifestazioaren eguna jarria zuten jadanik, eta horrela, 1890eko maiatzaren lehenean egin zen eskari haren aldeko manifestazioa. AEBn izan zen oihartzun gutxien izan zuen lekua, agian, iraileko lehenengo astelehenean “Lanaren Eguna” ospatzeko ohitura zegoelako. Hasiera batean, manifestazioa ez zen egin errepikatze asmoarekin baina izan zuen arrakasta ikusita, asmo hura aldatu egin zen eta eskariei, sufragio unibertsalaren (zuzena) aldarrikapena atxikitu zitzaizen. Dena den, arazoak ere egon ziren. Batzuk, manifestazioa maiatzeko lehendabiziko igandeetan egitearen aldekoak ziren (Britainia Handia batez ere) lanegunak aprobetxatzeko, eta beste batzuk ez. Bestetik, esan, egun hori jai internazionala izatearen jatorria alderdi politiko antisozialistetan dagoela.

Bederatzigarren kapitulari “Sozialismoa eta abangoardia. 1880-1914” deritzo. Bertan azaltzen denez, mugimendu sozialistek intelektualengan eta artistengan (ekonomikoki ziurtasun eza) eragin zuten; Baita ideologo politiko eta artisten arteko erlazioetan ere. Politikako eta arteko abangoardiak XIX. mendeko azkenaldian bateratu ziren, nahiz ondoren, *modernismo* erradikalaren lehenengo fasean banandu. Azkenik, berriz egin zuten bat Mundu Gerra eta Urriko Iraultzaren garaian. Sozialismoak berebiziko eragina izan zuen *Arts and Crafts* mugimendu britainiarrean, gero *Art Nouveau*-n, eta aurrerago, arkitektura modernista eta inpresionismoaren ondorengo abangoardian. Dena den, marxismoak artearengan izan duen eragin garrantzitsuena Morris-en teoriatik etorri zen. Honek, eguneroko bizitzari garrantzia ematen zion, artea burgesiarengandik urrunduz.

Hamargarren kapitulua, Harold Laskiri buruzko hausnarketa bat da. 1930-40ko hamarkadetan Britainia Handiko politika laboristan izan zuen jarduna azaltzen da, kontuan izanda garai hau depresio ekonomikoari eta faxismoei dagokiola. Amaitzeko, 1945eko gobernu laborista, XX. mendeko administrazio erreformista nagusia nola bilakatu zen azaltzen da.

“Historia Garaikidea” (11-15 kapituluak)

Gizakien intentzio eta erabaki kontzienteek lekurik hartzen ez duten gaiak jorrotzen dira bigarren atal honetan. Edonola ere, 15. kapitulua, Roy Cohn “alproja estatubatuarrari” dagokio.

“Vietnam eta gerrilen gerren dinamika” izenburuko kapituluan kontatzen denez, 1945etik aurrera, AEB bere botere industrialaz gehiegi fidatzen zen, baina bere harridurarako, gerra egiteko metodo berri bat agertu zen: gerrilena (nekazal mundukoa batik bat). Berritasuna ez zen militarra, baina politikoa (gakoa indar politikoan baitzegoen: lurraldeko herritarren laguntza ahalik eta handiena behar zen gerra irabazteko). Era honetako gerra egiteko zailtasunak egon daitezke. Hala nola, disziplina bat eta nukleo txikietan antolaturiko taldeak beharrezkoak dira; geografia garrantzitsua da gerrileroen arteko komunikazioa eta koordinazioa zail baititzake; hiriak dira azken betetzen dituzten gunek eta hemen aurkitzen dira normalean herrialdeko elementu nagusiak; etsaiek izuaren mehatxua erabil dezakete (tortura...) etab. Mota honetako borroketan bonba nuklearrak (jendea hiltzea) ezin dira gerra irabazteko mehatxu bezala erabili, ez delako zilegi etsaia errendiaraztea.

Hamabigarren kapitulua “1968ko maiatza”-z da: Parisen, ikasleek (anonimoak eta boteretsuak) mugimendu bat antolatu zuten eta De Gaulle-n gobernua ezustean harrapatu zuten. Bi etapa bereiz daitezke. Bat, maiatzaren 3tik 11ra non ikasleak mobilizatu eta gero langileengan eragina izan baitzuen. Eta bigarrena, maiatzaren 14tik 27ra. Greba espontaneoki hedatu zen eta hau izango litzateke iraultzarako aukerak sortu zituena. Baina mugimenduak ez zeukan helburu politikorik (nahiz eta hizkera politiko bat erabili). Are gehiago: ez zeukan helburu zehatzik ere. Etsaia, sistema bera zen.

“Indarkeriaren arauak” delakoan bortxaren logika aldakorak aztertzen dira. Indarkeria tradizionalan, indar fisikoa erabiltzen zen beste metodo eraginkor batzuk aplika ezin zitezkeenean. Orain aldiz, (indarkeria sozialean hainbat forma aurki daitezke) indarkeria pribatua, operatiboa izan edo ez, zilegitu daiteke eta indarkeria publikoa era indiskriminatu batean erabiltzen da. Gaur egungo gizartean ez dago indarkeria zuzenik, despertsonalizatua da, eta horrela zaila da bereizketak egitea. Indarkeria, araurik, mugarik gabe ari da gelditzen, eta printzipio moralik gabeko indarkeria, inork kontrola ezin dezakeena da. Hori da guztietan txarrena. Egun, paper idatzia eta pantaila lirateke aipagarrienak.

“Iraultza eta sexua” kapitulua 60. hamarkadan jazotako aldaketei dagokio: Hobsbawm-en arabera mugimendu iraultzaileen (sistema politiko edo esplotazio sozial zein ekonomikoa) eta sexuaren tolerantziaren artean lotura bat dagoela pentsatzeak ez du zentzurik, nahiz eta egia izan XX. mendeko iraultzak sexu tolerantziarekin erlazioa izan dutela: emakumearen emantzipazioa... Bestalde aipatzen du mugimendu iraultzaileek askatasun pertsonala kaltegarritzat hartu izan dutela, langileentzat sexua, drogak eta halakoak ez direlako onak. Denbora eta energia kontsumitzen dute eta ez dira antolamendu eta eraginkortasunarekin bat etortzen. Altxamendu kulturalak ez dira indar iraultzaileak, sintomak baizik. Eta ikuspuntu politikotik ez lirateke oso garrantzitsuak.

“Jazza” (16-22 kapituluak)

Jazzak AEB-ko herritar beltz pobreen artean, kale-musikan, dantzan eta desfileetan du jatorria, New Orleans-en hain zuzen ere, eta hortik adierazle internazional bat izatera pasa da. Jazzak, minoria baten zaletasuna izanik, historian zehar, garai desberdinetara egokitzeko malgutasuna duela erakutsi izan du. 1929tik II. Mundu Gerra amaiera arte bakarlariek indarra hartu zuten, *Swing* delakoa nagusituz eta orkestra handiak sortu ziren. Garai honetakoak dira Count Basie, Duke Ellington eta Billie Holiday (Hobsbawm-ek hauei buruzko biografiak idatzi ditu liburuan).

1940 inguruan New Orleans-eko jazzaren moda itzuli zen. *New Orleans Revival* izeneko (209-219. orrialdeak epealdi honi dagokion Sidney Bechet-i buruzkoak dira). Aldi berean, *Dixieland Revival* deritzana agertu zen, New Orleans-eko zuriaren musikaren berpizkundea. Gerra bukatuta, jazz modernoaren lehen aldia hasi zen (1945-1955) *be-bop* estilo biziarekin. *Bop*-ak jazzaren egitura eta estiloak guztiz eraberritu zituen. Gerora, *cool* estilo berria garatu zen. 1955etik aurrera *cool*-ari erantzunez *hard-bop*-a nagusitu zen. 1960 urtean *free jazz* delakoa sortu zen era tradizioaletik aldentuz. Dena den aldi honetan “etsai” nagusi bat izan zuen jazzak: *rock and roll*-a (berrikuntza teknologikoa izan zen). Hauen arteko desberdintasun nagusia, *rock and roll*-a ez zela minoria baten musika izan da. Gazte guztiek zuten gustoko, eta “mirari ekonomikoari” esker, diskoak erostea posible zitzairen. 60. hamarkadatik aurrera, bide esperimentalagoak erabili ditu jazzak, beste alorreko musika iturrietan oinarrituz. Baina bere partaide eta publikoa jende edadetera mugatzen denez batik bat, faktore horrek etorkizunean berebiziko ondorioak izan ditzake.

“Mundu zaharra eta berria” (23. kapitulua)

“Mundu zaharra eta berria. Kolonen 500 urte” izeneko atalean, europarrek Amerika aurkitu izanak ekarritako ondorioen inguruko balantze bat egiten da: 1492an “Amerika deskubritzean”, indigena askoren hilketari hasiera eman zitzaion, euren eraikuntzak suntsitu ziren... eta europarrek ez zuten uste izan hango herritarrek ekarpenik egingo zietenik. Baina ez zen hala izan. Lurralde berria ezagutzeak, egitura geologiko, klimatiko, faunistiko eta florari dagokionean, batetik, gizarte idealaren utopia sortarazi zuen, eta bestetik, eboluzioaren teoria gauzatzea bultzatu. Baina garrantzitsuena europarren kultura (arte plastikoetan horra Rembrandt eta Van Gogh-en eguzkiloreak), eta bizimodua aldatu zela da. Izan ere patatak, artoa, mandioka, boniatoa, garia, garagarra, arroza, kakahueteak, txokolata, tabakoa, kokaina... ekarri zituzten handik. Eta geroago, europarren kulturaren (eta munduko beste hainbatean) eragina izan duten txikleak, Coca-Colak, “gin- tonic”-eko tonikak, barazki olioak, kininak...

Amerikaren konkista eta kolonizatzearen eragina ez dagokie pertsona bakan batzuei eta urre edota zilarrari soilik.

2. Kritika

Institutoan, unibertsitatean... Historia ikastean, egitura politikoak eta ekonomikoak hartzen dira kontuan batik bat, lantzen den garaiko gizartearen ezaugarri nagusiak eta lehen mailako pertsonaiak. Ezaugarri hauek garrantzitsuak dira dudarik gabe, ezinbestekoak, oinarritzkoak, baina, lantzen ez den beste historiaren zatiak ere badauka bere esangura, eta, Eric Hobsbawm-ek, liburu honekin, alderdi horri buruzko informazioa ematea du helburu. Neurri handi batean lortu du.

Hirurehun orrialde inguru dituen idatziaren protagonistak, jende arrunta dira, langileak batik bat. Haien izenak ez dira oso ezagunak; Are gehigo: euren senitartekoek baino ez zuten euren berri izango seguru aski, lagunek, poliziak behar bada, eta kazetariren batek erreportaia bitxiren bat egiteko. Baina gorago esan bezala eta liburuko idazleak argi adierazten duen eran, talde anonimo hori gabe (gizartearen gehiengo osatzen duena), narrazio makrohistorikoa ezerezean geldituko litzateke eta lehen mailako pertsonaia horiek euren garrantzia galduko lukete erabat.

Liburua interesgarria da oso, argia, eta kritika negatibo bat egitea ez da lan erraza. Lana ikuspuntu sozialista batetik gauzaturikoa dela aintzat hartuta, bi gauza baino ez nituzke azpimarratuko. Bata, emakumezkoak ez direla asko aipatzen (nahiz eta badakidan garai hartan langile mugimendua gehienbat gizonen artean osatu zela) eta bestea, Mendebaldeko mundua jorratzen dela nagusiki (salbuespenak albuespen).

Azken puntu honi dagokionean, badakit Mendebaldea izan dela Industria Iraultzaren aitzindari eta jakinaren gainean nago idazlea bera ere Mendebaldean hezia izan zela, nahiz eta beste liburu baten dioen bezala, ez den inoiz leku zehatz batekin identifikatu. Ez da nazionalista, internazionalista baino. Noraezean ibili izan da leku batetik bestera.

Egipton jaio zen, Alexandrian, erdi kasualitatez (bere bizitzan zehar ez du erlazio handirik izan hiri honekin), nazionalitatea Britainia Handiak eman zion eta Erteuropan ere bizi izandakoa da. Munduko hainbat herrialdetan, Ingalaterrako inmigrante bat bailitzan sentitu izan da eta leku orotan judu bezala. Leku guztietako atzerritartzat du bere burua, Israelekoa batik bat: espezialistez beteriko herrialde horretan antiespezialista omen da. Baina, liburu konkretu honi dagokionean, berriz ere diot Mendebaldeari ematen zaiola nolabait nagusitasuna.

Historiagileak eszeptikoa izan behar du, eta eszeptiko jarrita, zer gertatuko litzateke iragana ikuspuntu eurozentristik baino beste perspektiba batetik interpretatuko balitz? Neokolonialismoaren eta *planing*-aren aro honetan planak beste nonbaitetik etorriko balira?

II. Mundu Gerraren ondoren, “deskolonizazioaren” mugimendua hasi zen eta Europako potentzia handien koloniak (Aro Berrian sortuak) estatu politikoki independenteak bilakatu ziren (nominalki batez ere, ez ordea

ekonomikoki). Lehenengoa, Indiakoa izan zen 1947an, gero Libia 1951an... Britainiarrek, era baketsuan adostu zituzten independizatzeko mugimenduen nondik norakoak, Frantziak ez (Aljeriako gerra kasu). “Hirugarren Munduko” herrialdeek Europan garatutako nazio kontzeptua eta metropoliek zeuzkaten garapen ekonomiko eta ongizate mailak lortu nahi zituzten (Gerra Hotzaren garaian bi bloke nagusitu ziren, bi mundu zeuden: edo AEB-ren aldekoa zinen edota SESB-en aldekoa. Hemendik Hirugarren Munduaren izendapena. Bestetik, ez da Ekialde Hurbila ahaztu behar.)

Mendebaldeko herrialdeak (SESB aparte) eredu izan ziren garai batean, eta gaur egun ere badira askorentzat. Urtetan zehar, Mendebaldeko Europak eta Ipar Amerikak batik bat, munduan lehendabiziko postua faktore bat baino gehiagotatik okupatu duten arren, gauzak aldatzen ari dira. Hein handi batean poltsikoak beterik izateak, zeri heldu izateak mugitzen du mundua, eta zeintzuk dira Amerikako Estatu Batuen zutabeak? AEB-k aurrezten duena baino gehigo gastatzen du eta norbaitek hutsune hori finantzatu beharra dauka, bestela, “mundua gelditu” egingo litzateke. Historikoki, AEB finantzatu dutenak hauek izan dira: 70-80 urteetan, arabiarrek petrolioari esker; 90. hamarkadan Japoniak eta maila baxuago baten Europak. Eta XXI. mendearen lehenengo urteetan? Japoniak eta 2. maila batean Txinak. Baina azken urteotan eta gero eta erritmo azkarragoan Txina garrantzia hartzen ari da (uste baino handiagoa). AEB, “made in China” produktuez gainezka dago. Zer egin? Ezer gutxi, AEB-k ere Txinan enpresak baititu eta ez zaio interesatzen duten harremana etetea. Eta Europari buruz? Batasun politiko bat edukitzea baino batasun ekonomiko bat izateari lehentasuna emanez, herrialde askorentzat bertako ongizate maila, eredu erakargarria da oraindik. Alemania eta Frantzia nagusitzen dabilta, Espainia edota Italia bezalako herrialdeen kaltetan. Eta zein da guzti honetan Euskal Herriaren rola?

Orain arte, historia garaileek idatzi dutela esan da (arestian aipatu herrialde batzuk; minoria). Bai eskala txikian, indibiduoek, baita eskala handian ere, Mendebaldeko munduak, mundu garatuak. Globalizazioaren aroan, aberastasunak ez daude ondo banatuak. Eta historia egiteko modua bai? Hirugarren Munduko herrialdeek eta beste batzuk (gehiengoa), euren iragana, eta era orokorrago batean, historia idatziko balute?

Egunkarietan, ohituta gaude behin eta berriz antzeko albisteak irakurtzera, telebistan irudi berdinak ikustera... gauza askok jadanik ez gaituzte harritzen. Banaka batzuk argazki ohikoak bilakatzen dabilta. Auskalo ezinezkoa den mundua aldatzea eta gizakiok sortzen ditugun ekintza batzuk ekiditea, baina zaila bai behintzat. Gertaerak idazterakoan, irudiak transmititzean, ahoz kontatzean... dena izatea berez ezin da aldatu, kontatzeko era bai.

Azken finean, historia, historiagileek egindako iraganaren interpretazioak dira eta interesen arabera aldatzen den zerbait da. Planteaturiko galderak desberdinak izanik erantzunak ere halakoak izango dira.

Eric Hobsbawm, 1917an jaiotako komunista (zein motatakoa?) judu britainiarra edo britainiar judua izanda (?), proletalgoaz eta honen bizimodua aztertzeaz arduratu izan da lan honetan. Jende arruntaz, erresistentzia egiten lagundu izan dutenez, altxatu izan direnez eta jazzaren munduaz (bera zaletu bat da). Zer idatziko zukeen ez balitz 1917an jaiotako komunista ez balitz izan, ezta judutarra ere, edo nazionalitatez britainiarra, eta tangoa jazz baina gustokoagoa izan balu?

Merezi du liburua irakurtzeak.

Iasmina Gorroño